

NEKAZAL SEKTOREA SUSTATZEKO 2023. URTEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA.

HERNANIKO UDALA

ARRAZOIEEN AZALPENA

Hernaniko nekazariei diru-laguntzak ematea herriko elikadura burujabetza sustatzeko.

Hernaniko Udalaren Tokiko Garapenaren arloak misiotzat du Hernaniko biztanleria guztiaren ongizate materiala bermatzeko baliabide ekonomikoak sortu eta biztanleriaren esku uztea, herritarrek modu jasangarri, parekide, berdinzale eta parte hartzailean kudeatu eta dinamizatu ditzaten.

Ekonomiaren sustapena misiotzat duen departamentu honentzat estrategikoa da 1go nekazal sektorearen sustapena.

Egun, elikagaien ekoizpena kanpoko logiketan txertaturik dago zeharo, ekoizpen prozesuaren parte diren elementu guztiak kanpoko eragileen estrategien baitan kokatzen direlarik. Honen adibide esanguratsua da EAE-n kontsumitzen diren elikagaien %5a besterik ez dela bertan ekoitzia, hau da, gainontzeko %95aren ekoizpena, banaketa eta kontsumoa nazioarteko lan banaketaren fluxuen arabera antolatzen da.

Honek egiturazko ondorioak dauzka bai gure lurraldeetan zein gure elikagaien ekoizpena egiten den lurraldeetan, dependentzia harremanen eragile eta ondorio diren heinean.

Batetik, Nazioarteko Lan Banaketaren arabera ematen den espezializazio produktiboan oinarritzen da eta hartan sakontzen du, periferiako herrialdeak elikagaien esportaziorako ekoizpen monokultibista, intentsibo eta industrialera kondentzen dituelarik, dependentzia sakontzen duen eredu extrabertitua sustatuz. Esan gabe doa lurralde hauen elikadura burujabetza eta segurtasuna deusezten dituela, nekazarien pobretze prozesuak indartuz.

Bestetik, eredu honek gure lurraldearen desartikulazio, artifizializazio eta dependentzia prozesua eragiten du, nekazal sektorearen desagerpen tekniko eraginez, BPG-aren %1-2, eta elikadura segurtasuna kanpo merkataritza fluxu (zaugarrien) esku utziz. Esan gabe doa, eredu honek gure osasunaren narriadura eta gure gizartearen akulturazioa eskutik dakartzala.

Azken urteotan baina, ugariak dira eredu honi aurre eginez, tokian tokiko alternatibak eraikitzen diharduten agenteak; ekoizle, nekazal sindikatu, eragile sozial eta kontsumitzaileek sortutako antolamendu eredu berrien bidez, lurraldearekiko, tokiko ekonomiarekiko, osasunarekiko eta tokian tokiko kulturarekiko elkar-erantzulea den eredua eraikitzen ari direnak. Alternatiba hauek, elikadura subirautza aldarrikatu, eta paradigma sozial, ekonomiko eta ambiental berri bat ari dira gauzatzen, nazioartean gero eta indartsuagoa den mugimendu sozial anitz eta emankorra sortuz.

Honek guztiak, mugimendu honen marjinaltasuna eragiten du; eragiten dituen onura ekonomiko, sozial eta ambientalen eragin esparrua guztiz bazterrekoa izatera kondentatuz.

Horrenbestez, goian aipatu bezala, nekazal sektorearen balio katea osatzen duten azpisektore guztietan eragiteko beharra begiztatzen zaigu parez pare, bertako ekoizpena, azpisektore horien guztien elementu zentralizat kokatu, eta gure lurraldearen garapen estrategietan traktore izateko eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu ahal izan ditzagun.

Proiektu honen hipotesi nagusia da bertako nekazal produktuaren kontsumoa nagusi izango litzatekeela, herriko biztanleek ohiko distribuzio kanalen bidez modu errazean eskuratzeko aukera izango balute. Horretarako, ezinbestekoa da tokiko nekazal sektoreko balio katea osatzen duten eragileen arteko artikulazioa bilatzea, eragile hauetako bakoitzak bertako produktua ekoiztu, transformatu, banatu, merkaturatu eta kontsumitzerako orduan dituen arazoei aurre egiteko sistema integratu bat eratuz. Helburu honekin, "Hernani KM0: Bertako Sarea" proiektua garatu nahi dugu, administrazioen, ekoizleen,

transformatzaileen, banatzaileen, merkatarien eta kontsumitzaileen arteko harremanak sustatu eta egituratuko dituen estrategia konpartitu bat sortuz.

Horretarako, ekoizpen-merkaturatze zirkuitu laburrak ehundu ditugu jantoki publikoen (klausula ambientalak) eta denda-jatetxe pribatuen bidez (bertako ekoizpena saltzen duten establezimenduak bisibilizatuz eta balioan jarritz); eta, ekoizpena eta nekazari kopurua handitzeko lur berrien eskuratzea eta aktibazioa sustatu ditugu ekimen publikoaren bidez.

Aipatu bezala, proiektu hau balio kateko eragile guztien arteko elkarlanean oinarritzen da, bai balio katean kokagune berbera daukaten eragileek, zein, kokagune ezberdina daukatenen artekoa ere.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

Deialdi honen helburua Hernaniko udalerriko elikadura burujabetza sustatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea da.

Diru laguntza honek lerro bakarra dauka.

1- Tokiko nekazarien eta abeltzainen ekoizpena eta banaketa sustatzeko jarduerak.

2. artikulua.- Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da alkateak 2019ko irailaren 10ean emandako eskuordetze Dekretuaren arabera.

3. artikulua.- Aurrekontuko diru hornidura.

Deialdi honen helburuak lortzeko 15.000 euroko diru kopurua aurreikusi zen 2023ko ekitaldiko udal aurrekontuaren ondorengo partida honetan:

1.02.471.01.439.00 2023 (6823)
DIRU-LAGUNTZA NEKAZARITZA.

4. artikulua.- Interpretazioa eta araubidea.

Diru-laguntza emateko ardura duen organo berari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantzari buruz erabakitzea.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Araudia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua, aplikatuko dira.

5. artikulua.- Publizitatea.

Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdia eta oinarri arautzaileak eta haien babesean emandako diru-laguntzak udalaren web orrian www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAOn) eta Diru-laguntzen Datu-Base Nazionalen argitaratuko dira.
(<http://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/ge/eu/index>)

II. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN ESKU HARTZEAK ETA ONURADUNAK

6. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.

Deialdi honen bidez lagunduko diren inbertsioak edo jarduketak 2023/10/31ean egon beharko dute burututa.

Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagungarriak izan daitezkeen jarduketak puntu honetan sartuta dauden jarduketa guztiak izango dira:

- Hernaniko ekoizpenaren banaketarako baliabideak eskuratzeko inbertsioak.
- Ekoizpen gaitasuna handitzeko eta hobetzeko egiten diren inbertsioak: negutegiak, makineria etab...
- Tresna, lanabes eta makineriaren konponketa eta mantenu gastuak.

7. artikulua.- Diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa eta diruz lagunduko diren gastuak.

Tokiko nekazarien eta abeltzainen ekoizpena eta banaketa sustatzeko beste jarduerak: 15.000 euro. Eskatzaile bakoitzak 2.000euro jaso ahal izango ditu gehienez.

Egindako inbertsioaren %75 lagunduko da gehienez.

Era berean, EZ dira diruz laguntzeko moduko kostutzat hartuko:

- *Erositako ondasunengatik edo fakturatutako zerbitzuengatik ordaindutako BEZa eta, oro har, beste edozein zerga.
- *Funtzionamendu arrunteko gastuak: alokairu gastuak...
- *Eta oro har, argi eta garbi definituta ez dauden gastuak eta helburu zuzena oinarri hauen xedeak betetzea ez dutenak.

8. artikulua.- Onuradunak eta hauek betebeharreko baldintzak.

Diru-laguntza hauen onuradunak izateko ezinbesteko baldintzak dira:

- Ekoizle profesionala izatea.
- Ustiapena Hernanin kokatuta egotea.
- Gutxienez NLU bat edukitzea.

* Gizarte Segurantzza, Ogasuna eta Hernaniko Udalarekiko zerga betebeharretan egunean egotea.

*Diru-laguntzetarako Lege Orokorreko (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) 13.2 eta 13.3 artikuluetan xedatutako egoeretan ez egotea.

9.artikulua.-Beste diru-laguntzekiko bateragarritasuna.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, estatutik nahiz Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorritako beste edozein diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderek.

Beste laguntza batzuekin elkartuz gero, guztien kopuruak ezin izango du diruz lagundutako jardueren kostua gainditu. Bestela, behar den kopuruan murriztuko da deialdi honen kargura emaniko diru-laguntza.

III. KAPITULUA

PROZEDURA

10. artikulua.- Diru-laguntzak emateko prozedura.

Aurkeztuko diren proiektuak irizpide propio eta zehatzen arabera baloratuko dira.

Tokiko nekazarien eta abeltzainen ekoizpena eta banaketa sustatzeko jarduerak:

Diru laguntza hau Hernaniko nekazariak eta abeltzainak ekoizpenerako beharrezkoak dituzten baliabide eta makinerian egindako inbertsioak laguntzera bideratuko da.

Banatuko den kopuruak ezin izango ditu 15.000 euroak gainditu eta kopuru hau eskatzaile guztien artean banatuko da kopuru beretan.

Eskatzaile bakoitzak gehienez 2.000 euro jaso ahal izango ditu eta gehienez ere kostu osoaren %75a lagunduko da.

11. artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

Eskaerak aurkezteko epea Oinarriak eta Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren hurrengotik hasi eta, bi hilabetekoa izango da.

Eskaerak legezko ordezkariak edo eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu, Udalak prestatutako eskabide-eredu normalizatuan:

- Telematikoki, Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoaren bidez.
- Aurrez aurre, Hernaniko Udaleko HHZ bulegoan (Herritarren Harrera Zerbitzua), Gudarien plaza 1.

12. artikulua.- Eskabideak: dokumentazioa.

Diru-laguntza hauek jaso ahal izateko, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte eskatzaileek:

- a) Diru-laguntza-eskabide normalizatua, bete eta sinatua.
- b) Diru-laguntzaren xede izango den jardueraren deskribapena eta aurrekontua (1. eranskina).
- c) Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK) dokumentuaren fotokopia elkartentzat eta honen ordezkariaren NA dokumentua.
- d) Eskatzailearen kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
- e) Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen estatutuak eta curriculum: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab. (sortu zenetik aldaketak izan badira).
- f) Ekoizle profesionala dela bermatzen duen agiria. (2021ko errenta aitortpena eta gutxienez NLU 1 edukitzea).
- g) 10. artikuluan ezarri diren baldintzak betetzen direla frogatzen duten dokumentu eta ziurtagiriak.

Nolanahi ere, aurkeztutako egitasmo/jarduerari dagokion dokumentazioaz gainera, Udalak egokitzen hartzen duen informazio osagarri osoa eskatu ahal izango die eskatzaileei, aurkeztutako instalazioa/jarduera baloratu ahal izateko.

13. artikulua.- Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozedura artxibatuz, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

14 artikulua.- Bideratzea.

Espediente hauek tramitatzea eta diru laguntzak ematea Tokiko Garapeneko Udal Sailaren ardura izango da. Aipatu unitateak ofizioz egin ahal izango ditu ebazpen-proposamena burutzeko datuak ezagutu edota frogatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

15 artikulua.- Ebazpena.

Diru-laguntzak ebazteko organo eskuduna alkatea izango da. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horren barnean ebazpenik eman ez bada, eskabidea baztertua izan dela ulertuko da, tartejarri ahal diren administrazio-helegiteei begira.

Eskaera aurkezteak ez du berez ematen diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta diru-laguntza orori dagokion hautazko izaera izango du kontzesio horrek ere.

Diru-laguntza ematea edo ez ematea erabakiko duen Alkatearen Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabete bateko epean, eman zuen organo beraren aurrean, edo bestela, Donostiako Administrazio-auzietarako Epaitegiaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

16 artikulua.- Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza modu honetan ordainduko da:

- %80ko kopurua diru-laguntza ematea onartzen denean.
- Gainontzeko %20a justifikazio txostena aurkeztu ondoren.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, hura bakarrik hartuta edo beste Herri Administrazio batzuen edo beste Erakunde Publiko edo pribatu batzuen beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin batuta, ez da, inola ere, onuradunak egindako instalazioaren edo jardueraren kostua baino handiagoa izango.

Jarduerak, diru-laguntzarekin ez ezik, funts propioekin edo beste diru-laguntza edo baliabide batzuekin ere finantzatu badira, funts horien zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira eta diruz lagundutako jardueretarako erabili direla egiaztatu beharko da justifikazioan.

17. artikulua.- Aurkeztu beharreko justifikazioa.

Justifikazioa, egitasmoa bukatu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da eta, beranduenez, 2023ko azaroaren 30n.

Zuriketa egiteko ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Diruz lagundu den programa edo jardueraren memoria xehatua.
- b) Sarreraren eta gastuen balantze ekonomiko xehatua.
- c) Egindako gastuen justifikazio fakturak, eta ordainketa egin dela justifikatzen duen dokumentazioa.
- d) Dokumentazio grafikoa (argazkiak, kartelak).
- e) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo laguntzen zerrenda: zenbatekoa eta jatorria.

18. Artikulua.- Onuradunaren betebeharrak.

Emandako dirulaguntzak ondasun inbentariagarriak erosteko erabiltzen badira, erakunde onuradunak dirulaguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan.

IV. KAPITULUA

KONTROLA ETA PUBLIZITATEA

19. Artikulua.- Diru-laguntzen publizitatea.

Diru laguntzen publizitateari dagokionean, bete egingo da azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. eta 20. artikuluek eta abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluek xedatutakoa.

20. Artikulua.- Ikuskaritza eta kontrola.

Pertsona onuradunak behartuta egongo dira diru-laguntzen kudeaketa zuzena bermatzera bideratutako ziurtatze guztiak erraztera. Eta ezingo die uko egin diru laguntza eman duen organoak egin beharreko ziurtatze jarduketei.

21. Artikulua. Ez betetzea.

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada, diru-laguntza berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu, edo emandako diru kopurua itzuli egin beharko da.

Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo diru-laguntza eman zuen organoaren eskariz, eta, hala badagokio, emandako diru-laguntza baliogabetzea, murriztea edo itzultzea erabaki ahal izango da, behar bezala arrazoituta. Prozeduraren izapideetan interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.

22. Artikulua.- Adostasun-adierazpena.

Diru-laguntzaren eskaera aurkeztean, eskatzaileak bere adostasuna ematen du eta adierazten du oinarri hauek ezagutzen dituela, deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdia oso-osorik onartzen duela.

23. Artikulua.- Datu pertsonalen babesa.

Eskatzaileak adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan trata daitezela, eta baimena ematen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko, nahiz eta datu horiek beste administrazio publiko batzuei eta haien erakundeei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkien, Datu pertsonalak babesteko 2016ko apirilaren 27ko EB 2016/679 Erregelamendu Orokorraren 6.1.e. artikuluan aurreikusitako kasuetan.